

## **UPV/EHUN IKERTZAILE DOKTOREAK ESPEZIALIZATZEKO KONTRATATZEKO DEIALDIA (2015): *Behin betiko Ebazpena***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen proposamenaren ostean (IGBB) eta Gobernu Kontseiluak 2015eko apirilaren 30ean bere baimena eman ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

### **UPV/EHUN IKERTZAILE DOKTOREAK ESPEZIALIZATZEKO KONTRATATZEKO DEIALDIA 2015.**

Eskaerak ebaluatzeko izapidea amaitutakoan, onartu eta baztertutako eskaeren behin behineko zerrenda Errektoreordetzaren web atarian argitaratzeko agindua ematea erabaki zuen IGBBk 2016ko otsailaren 1ean egindako bileran.

Ondoren, behin betiko baztertutakoen kasuan, hamar eguneko epea izan zuten hautagaiek egoki irizten zituzten alegazioak aurkez zituzten.

Epe hori amaitutakoan, IGBBk, 2016ko martxoaren 2an egindako bileran, aurkeztutako alegazioak aztertu eta erabakia Ikerketaren arloko errektoreordeari jakinarazi ondoren, azken honek deialdiaren behin betiko ebazpena Errektoreordetzaren web atarian argitaratzea ERABAKI zuen.

Izapide honen ostean onartutakoen kasuan, hautagaiek **2016ko martxoaren 14tik 18ra (biak barne) izango dute**, laguntza onartu edo ukatzen duten [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikoaren bitartez jakinarazi eta beren kontratua izapidetzeko ondorengo dokumentazioa bidal dezaten. Erabili beharreko ereduak Errektoreordetzaren web orrian daude eskuragarri ("Dokumentazioa" erlaitza).

- a. Aurreko beken aitortpena
- b. Gizarte Segurtasuneko fitxa
- c. Zereginetan hasi izanaren agiria (2016/04/01ean hasiko dela adieraziz)
- d. Onuradunaren aitortpena
- e. Eskaeran adierazitako doktorego programaren matrikula frogagiria
- f. NANaren fotokopia
- g. Lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua

Jarraian, dokumentuak paper euskarrian aurkeztu beharko dituzte, **nahitaez**, Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean, edo bestela, Correosen bulegoetako batean, bidalketa administratiboaz baliatuz, hau da, gutun-azal irekian eta ziurtatutako postaz hurrengo helbidera bidaliz:

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Giza Baliabideen Sekzioa)  
Errektorego eraikina  
Sarriena auzoa, z/g  
48940 – Leioa (Bizkaia)**

Behin betiko baztertutako eskaeren kasuan eta alegazioak aurkeztu badituzte, hautagaiek alegazio horien inguruko banakako erantzuna jasoko dute otsailaren 14tik 18ra bitarteko astean, formatu digitalean, eskaeran adierazitako helbide elektronikoan.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta horren aurka ondorengo aurkaratze bideak erabili ahal izango dira, baina inola ere aldi berean:

Lehenengo eta behin, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke erabaki hau eman duen organoari berari **hilabeteko epean**, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat jo eta biharamunetik kontatzen hasita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116 eta 117. Artikuluak, eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua).

Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, **bi hilabeteko epea dago**, erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikulua).

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoz bidez egin daitezela eskatzen da:

- Emandakoak honako helbide honetara zuzenduko dira: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus)
- Ukatutakoak, berriz, honako honetara: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

Leioan, 2016ko martxoaren 14an

Ikerketa Deialdien Atala  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

## I. ERANSKINA

### BEHIN-BEHINEKO ONURADUNEN UKOAK:

KODEA	NAN
ESPDOC15/027	45819055L
ESPDOC15/095	78886192X

### ALEGAZIOEN OSTEAN EMANDAKOAK:

KODEA	NAN	PUNTUAZIOA
ESPDOC15/105	78905740P	94
ESPDOC15/039	Y1203362Q	92
ESPDOC15/042	49402213F	90

### BEHIN-BETIKO BAZTERTUAK:

Behin-behinean baztertuak suertatu eta behin-betiko ebazpen honetan "Alegazioen ostean emandakoak" zerrendan azaltzen ez diren eskatzaileek euren eskaerak behin-betikoz baztertuak izan direla ulertu beharko dute.